

RUE, JOAN (2009)

*El aprendizaje autónomo en Educación Superior*. Madril: Narcea.

Liburu honek ikas prozesu autonomoen gaian jartzen du arreta. Irakurterraza da antolaketa garbiaren ondorioz.

Autoreak ikas prozesu autonomoetan jartzen du begia eta hainbat galderari erantzun nahi die:

- ikaskuntzaren sakontze mailan urratsak eman al ditzakegu ikasleen autonomia intelektuala kontutan hartu gabe?
- Zein bitarteko da egokiena ikasleen autonomia sustatzeko?

Horrela, liburuan zehar Joan Ruek galdera horiek praktikaren begiradapetik erantzun nahi ditu.

Autoreak ikas prozesuaren onurak agertzen dizkigu liburuaren lehen atalean. Idazketa finaren ondorioz, ondo asko kokatzen du ikas prozesu autonomoaren ezaugarriak gaur egungo gizartean baita Goi Mailako ikaskuntza prozesuetan ere. Zentzu horretan, azpimarragarria da testuan agertzen den lotura garbia kompetentzien eta ikas prozesu autonomoaren artean.

Kokapen horren ostean, liburuaren alderdi praktikoena den bigarren zatia datorkigu. Bertan ikas gela batean ikas prozesu autonomoa nola planifikatu daitekeen azaltzen du autoreak, baita nola erraz eta lagundu dezakegun ere. Zentzu horretan interesgarria da oso, hainbat ariketa eta testuinguru aintzat hartuz, ikasleek zein irakasleek egin behar dituzten jarduerak nola zehazten diren. Orrialde horietan guztietan ageri da liburu honen nahi eta asmo didaktikoa, zenbaitetan xehe-xehe azaltzen baita ikaslearen prozesu autonomoa bultzatzeko prozedura.

Ikuspegi hori osatze aldera hainbat tresna praktiko interesgarri ere garatzen ditu autoreak liburuan zehar. Horrela, talde handian zein txikian ikas

prozesua nola landu daitekeen azaltzen da, zein baldintza diren egokienak eta nola sor daitezkeen, portafolioaren erabileraren onurak, IKTren erabileraren ahalmenak ikas prozesu autonomoa sustatzeko, eta, jakina, nola ebaluatu behar den ikas prozesua.

Zinez, ikuspegi osoa ematen du autoreak, non oso gauza gutxi uzten dituen bazterrean ikas prozesu autonomoaren gauzatze praktikoan.

Liburuaren hirugarren atalean curriculumaren inguruan aritzen da autoreak. Seguru asko atalik ahulena da, modu behartuan sartu izan balu bezala, eta egia hori zor, curriculumaren gaienean informazio berririk, osagarrikerik edo lehendik ez genekiena ez du sartzen. Aurreko atalak baino azalekoagoa da.

Nolanahi ere, laugarrengoan lehenengo bietan izandako maila berreskuratzen du liburuak; izan ere, bost eranskinen bitartez ikas prozesu autonomoen gaineko teoria modu zehatz eta argi batez agertzen zaigu. Horrekin batera, hainbat irakas baliabideren berri ematen dizkigu autoreak; ikas prozesu autonomoa antolatzeko eta planifikatzeko tresna zehatzak esplikatuz; ikasleentzako gogoeta bultzatzeko bitartekoak eskaini eta adibide baten berri eman ere.

Modu horretan, era argi batean borobiltzen du autoreak liburuan zehar aipatzen eta garatzen dituen hainbat ideia, baina horiek osatuz eta argituz, ez soilik errepikatuz. Benetan eskertzekoa da azken zati honetan Joan Ruck egiten duen ahalegina ideiak laburbiltzeko.

*Asier Huegun*

FERNÁNDEZ GARMILLA, A. eta BELTRÁN URCELAY, J.M. (2009)

*Eskuekin mintza!* Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. CD-ROMa.

Libururik ez, euskarri informatikoko argitalpena da honako CD-ROMa Eusko Jaurlaritzaren eskutik argitaratu berri dena, formato honekin alderdi eraginkorrenera begira argitaratu ere. Angela Fernández eta Jose Manuel Beltrán-en ekarpen honetan lengoaiari zein hizketan komunikazio arazoak dituzten ikasleei laguntzeko asmoz sortu dituzte honako informatika programak Heziketa Bereziko ikasle zein irakasleek, guraso zein interesatu orok eskertuko dutena. Eskaintzen diren materialak ikasleei begira eginda daude nagusiki, hizkuntza (zeinuena edo ahozkoa) ekintza atsegin eta ezberdinen bidez garatu ahal izan dezaten.

Entzumen ezgaitasunen edo bestelako garapen gaitzengatik sorturiko arazoan aurrean (hizkuntzan atzerapenak, adimen urrikoak, autismoak, etab.), programok bi xede nagusi hauek izan dituzte ikusmiran: adin goiztiarretan zeinuen irakaskuntza erraztea, batetik, eta Komunikazio arloko Laguntza Tekniko Areagotzaileen eta Alternatiboen erabilera bultzatzea eta normalkuntza prozesua ahalbidetzea, bestetik.

Ikasmateriala sortzeko eta egokitzeko erabilitako komunikazio-sistemak:

1. Irudien bidezko Komunikazio Sistema (Picture Communication Symbols edo, gaztelaniaz, SPC). Haren lexikoak hiru mila zeinu grafiko baino gehiago ditu eguneroko komunikazioan azaltzen diren hitz eta kontzeptu hedatuenak adierazteko, eta, ondorioz, oso tresna aproposa da adin eta ezgaitasun ezberdineko ikasleentzat. Sistema honetako irudiak oso ulerterrazak dira solaskideentzat eta, euskarri iraunkor batean aurkeztean, oroimen gutxiago eskatzen dute informazioa prozesatzeko unean. Aldi berean, trebetasun motoriko gutxiago behar izaten dute hitzak eta kontzeptuak adierazterakoan. Komunikazioa errazteko, soinuak eta ahotsak erantsi zaizkio SPC delako honi.
2. Ohiko sistema ortografiko egokitua, berori baita arruntena eta normalduena hiztun gehienon artean.
3. Zeinu-hizkuntza. Entzuten ez dutenen zeinu-sistema. Berezko egitura, gramatika eta sintaxia dauzka. Modu naturalean garatu ohi dira zeinuak.
4. Sistema bimodala. Hizkuntza-adierazpena bi kode sistema bereziren bidez burutzen da: soinuaren bidez (entzumena) eta eskuen bidez (ikusmena). Erabiltzen diren zeinuak gorren komunikazio zeinuak dira oro har. Gramatika eta sintaxia, ordea, aho hizkuntzarenak dira.

Dena dela, ez da tartean falta irakasle, logopeda eta bestelako profesional eta gurasoak ikusmiran dituen materialik ere, hiztegi orokorra, hiztegi tematikoa (jantziak, frutak, zenbakiak, eguraldia...), alfabeto daktilologikoa, ipuinak.

*J.M.<sup>a</sup> Osinaga*

BLANCO, A. (koor.) (2009)

*Desarrollo y Evaluación de Competencias en Educación Superior.* Madril: Narcea.

Inondik inora gaurkotasun handiko liburua Narcea argitaletxeak eskaintzen diguna, Madrilgo Autonomoa Unibertsitateko Ascensión Blanco psikologoak koordinatua. Liburuak europar eremuak eskatzen dituen beharretara egokitzeko laguntza ederra eskaini nahi du hamar ataletan gai nagusiak banatuz. Konpetentziaren definizioak, zer diren konpetentziak Goi Irakaskuntzan eta hauek nola txertatzen diren unibertsitateko curriculumean dira Magdalena Bonsón-ek lehenengo atalean jorratzen dituenak liburuaren testuinguru orokorra marraztuz.

Gainontzeko atalek —ñabarduraren bat edo beste— eskema berberari jarraitzen diote: a) Kontzeptua argitzea, b) Metodologia eta ebaluazioa,

c) Konpetentziak garatzeko tresnak eta adierazleak, d) Aplikazio praktikoak eta e) Emaitzak, dagozkien gogoetak barne. Horrela eskemari eutsiz, *Lanaren Antolaketa eta Kudeaketa* izango da bigarren atala Enrique Castaño-k egina, *Ikasleen parte hartzea eta Talde Lana* hirugarrena (Ascensión Blancorena), *Pentsaera Kritikoa Unibertsitatean* laugarrena (Begoña Learretarena), *Ahozko Komunikazioa eta Ideien Aurkezpen Eraginkorra* bosgarrena (Eva Asensio eta Ascensión Blancorena), *Ardura Ikasketetan* seigarrena (M.<sup>a</sup> J. Terrón, M.<sup>a</sup> J. García eta Y. Archilla-k egina), *Kultur-aniztasuna eta Dibertsitatea Unibertsitateko Geletan* zazpigarrena (Heike Pintor-ena), *Sormena eta Berriztapena Unibertsitateko Geletan* zortzigarrena (Álvaro Merino-k egina), *Gatazken kudeaketa eta Negoziazioa Unibertsitateko Geletan* bederatzigarrena (A. Blancorena) eta hamargarrena TIC-ei zuzendua.

Modu orokorrean begiratuta, ikasketa prozesuaren erdigunean ikaslea kokatzea (behin eta berriz liburuan azpimarratuta) ezin nabarmendu baino; egileen kezka —unibertsitateko irakasleentzat lagungarri suerta dakiokena azalduz— agerikoak dira zentzu honetan. Hala ere, ezin aipatu gabe utzi liburu honek dituen mugak, sarri egile askotarikoetan gertatzen den bezala: alde batetik egileek egun unibertsitateko irakasle gisa jarduten dute, zein bere eremuan, eta liburuan agertzen diren ekarpenak unibertsitateko geletan izandako esperientziak jasotzen dituzte; gauza interesgarriak aurkitzen dira, jakina, baina denak ez daude maila berean: oso ezagunak baitira batzuk edota oso testuinguru berezia eskatzen dute beste hainbatek, kasu bitxiak ere emanez; esate baterako, hirugarren atalean (*Ikasleen parte hartzea eta Talde Lana*) agertzen den «tormenta de ideas» deiturikoak zerikusi gutxi du zortzigarrenean (*Sormena eta Berriztapena Unibertsitateko Geletan*) agertzen denarekin.

Edozein modutan, hainbat irakaslek izandako esperientzia, gogoeta, proposamen... jasotzen du liburuak eta denak ez zaizkigula baliogarriak izango jakitun, gustura irakurtzen den liburua da hau eta gure eguneroko jarduerarako ideia interesgarri eta aukera ugari aurkituko ditugulakoan ziur egon gaitezke. Gainera, nahi edota beharren arabera zuzen dezakegu irakurketa: atalak saltoka irakurri daitezke, gure interesa gidari.

*K. Burgoa*

KNAPCZYK, D. (2008)

*Guía de Autodisciplina. Cómo transformar los problemas de conducta en objetivos de autodisciplina.* Madril: Narcea.

Hezkuntzako katedraduna eta Indianako Unibertsitateko Collaborative Teacher Education Programeko zuzendaria den Dennis Knapczyk ikasleen autodiziplina lantzeari buruzko liburu hau dakarkigu. Knapczyk hezkuntza bereziko maisua izan zen eta unibertsitateko irakaslea izateaz gain

urteak eman ditu irakasleriaren prestakuntzan. Berarentzako autodiziplina denok ikasten dugun zerbait da eta, hala izanda, uste du diziplina gelan irakatsi behar dela, curriculumaren barnean, beste arlo batzuk irakasten diren modu berean. Diziplina, irakasleen bidezko ikasleen kontrolera bideratzen dutenen kontra, berak ikaslearen ikaskuntzan oinarritzen du.

Liburua autodiziplina kontzeptua definitzen hasten da: ardurak hartzeko eta norberaren jokabide kontrolatzeko gaitasuna, trebetasun zehatz batzuk eskatzen dituena, ikasleek egoera desberdinetan erabiltzen ikasi behar dituztenak. Ikaste hau lortzeko honako hauek planteatzen ditu: diziplina curriculumaren arlo bat izatea, arreta jartzea nahi dugun jokabidean eta ez arazoak sortzen dituztenetan eta diziplina ikasleekin burututako bide bat bihurtzea. Halaber, autodiziplina portaeraren hiru dimentsio lotzen ditu: ekintzak gauzatzea, motibazioa eta epaitzeko era, hirurak ondo kontrolatzea eta orekatzea funtsezkoa izanik eskolako edozein egoeratan arrakasta izateko.

Aurrekoa esanda, Knapczykek liburuaren zati handiena teorizatzen duena praktikara nola eramateari dedikatzen dio. Horretarako, autodiziplinari dagokion trebetasun eta abilezia bakoitza ikasleekin lantzeko moduak eta adibideak azaltzen ditu, gomendioak eta materialak eskainiz. Aipatu behar da ohiturei ematen dien garrantzia autodiziplina lortzeko, ikasleei jokabidea antolatzerara eta ordenatzerara eta autonomo eta independenteago izatera laguntzen dietelako.

Laburbilduz, gida erabilgarria Knapczykek eskaintzen diena ikasleen autodiziplinaz arduratuta egon eta hau lantzeko bide eta metodoen atzean dabilzan irakasleentzat.

*Elena Herran Izagirre*

LÓPEZ PASTOR, V. M. (2009)

*Evaluación Formativa y Comparativa en Educación Superior. Propuestas, técnicas, instrumentos y experiencias.* Madril: Narcea.

Miguel Ángel Zabazak zuzentzen duen «Narcea universitaria» bilduman dugu kokatuta liburu hau, izenburuak berak aditzera ematen duen eran eta egile askoren ekarpenak biltzen ditu bere baitan: guztira, 15 unibertsitateko 25 irakaslek parte hartzen dute «Red Interuniversitaria de Evaluación Formativa en Docencia Universitaria» izeneko proiektuan integraturik.

Liburu mamitsua (270 or) eta biziki interesgarria ebaluazio prozesuaren inguruan interesaturik dagoenarentzat. Hiru zatitan dago banatuta: lehen-dabizikoan marko teorikoari zuzendua dago; bigarrena prestakuntzazko ebaluazio sisteman emandako esperientziak eta emaitzak aurkezten ditu; hirugarrenak halako ebaluazio sistema gauzatzeko kontutan hartzeko gai-gakoak jorratzen ditu.

Hiru zatiek ez dute, hala ere, proportzio bera: lehenengo zatian sei atal sartzen dira, bigarrenean lau eta bakarrak osatzen du hirugarrena. Kontzeptuen errebisioa, ebaluazioaren egoerari errepassoa, teknika eta instrumentuak ebaluatzeko, ebaluatzeko proposamen orokorra, ikasleriak nola bizi egiten duen bere inplikazioa prozesu honetan eta ebaluazioa TIC delakoan bitartez nola gauza daitekeen dira lehenengo zatian sartzen diren atalak. Liburuaren bigarren zatiak, lehenengoan agertu diren arazoan aplikazio praktikoak aurkitzen dira, guztira hamabi esperientzien berri ematen. Azken zatian (eta atalean) arazoan gida modukoa eskaintzen da, unibertsitate testuinguruan ebaluazio sistema hau garatzeko gai-gakoak agerian jarritz; hain zuzen, izandako praktiketatik ateratakoak hamahiru gai-gako dira identifikatutakoak, bost kategoriatan banatuta eta gai-gako bakoitza hiru azpialak hauekin: a) gogorapenak b) praktikan jartzeko sor daitezkeen arazoak eta c) ahalezko irtenbideak eta jarduteko estrategiak.

Beste aldetik eta liburuaren egiturari dagokionez, atal bakoitzean gaia egoki kokatzeko hasierako laburpen bat azaltzen da eta garapenaren ostean erne irakurtzeko ondorioak ere; bukaera aldean normalki halako laburpen-taulak eskaintzea oso lagungarriak direla ukatzerik ez dago. Halaber galdera batzuk (autoebaluaketarako eta errepassoa egiteko) aurkitzen dira eta lagungarriak diren irakurketa gomendagarriak.

Liburuak mamitsua eta erabilgarria da irakaskuntza prozesuan interesarik dagoen unibertsitateko irakaslearentzat, bereziki prestakuntzazko ebaluazio sistemaren bitartez ikasleen ikasketa eta irakasgaien kalitate maila hobetu nahi duenarentzat.

*J.M. Mues*

MARCO STIEFEL, B. (2008)

*Competencias básicas. Hacia un nuevo paradigma educativo.* Madrid: Narcea.

Ez da erraza aldatzea, are gehiago aldatetaren nondik norako zentzua argia ez dagoenean. Hori da liburu honek argitu nahi duena; zer da kompetentzia bat, zer da gaur egun etengabe eta nonahi erabiltzen den kontzeptu konplexu eta zentzu ezberdinez osatutako hori. Ez da erraza argitzeko baina egile hau praktikatik eta hortik eratorritako ikerketetatik eta hausnarketa teorikoetatik datozen erantzunetatik azaltzen saiatzen da.

Liburuak honako atal hauek bereizten ditu: Kompetentzia kontzeptuaren hurbilketa, Hezkuntzaren Lege Organikoaren gizarte testuingurua, Kompetentzia eta testuingurua, Ezagupenen mobilizazioa eta ikasitakoaren transferentzia, Hezkuntzaren Lege Organiko proposamenean dagoen cu-

rriculum koherentzia, Euskarriak eta baliabideak, Terminoen glosategia, Bibliografia eta Web-grafia.

Liburuan argi uzten da ez dela estatu espainolean ematen ari den aldaketa bat, mundu osoan eragiten ari den hezkuntza paradigma baten eragina baik. Liburuak Hezkuntzaren Lege Organikotik (LOE, 2006) hasten du ibilbidea, azpimarratuz nola joan diren sortuz, osatuz eta gorpuztuz gaur ezagutzen ditugun zortzi oinarrizko gaitasunak. Sakondu egiten du gaitasun kontzeptuaren inguruan, eta arreta berezia jartzen du zortzi oinarrizko horien artean aurki daitezkeen elkarren arteko erlazioetan (*Hizkuntz komunikaziorako gaitasuna, matematiketarako gaitasuna, ezagutza eta mundu fisikoarekin elkar ekintzan egoteko gaitasuna, informazioaren trataera eta gaitasun digitala, gizarte eta hiritar gaitasuna, arte eta kulturarako gaitasuna, ikasten ikasteko gaitasuna, eta autonomia eta inizatiba pertsonalerako gaitasuna*). Oinarrizko gaitasun horiek erakusten digute nolako pertsona proiektatzen duen gizartera eskolak eta, aldi berean, eredu hori egokia ote den gizarteak irudikatzen dituen balio-hutsuneak betetzeko, alegia, hezkuntza gaitasun-terminoetan planteatzen dena. Liburua bat dator Philippe Perrenoud-ek ematen duen kompetentziarako definizioarekin. Honela definitzen du Perrenoud-ek kompetentzia: *mota guztietako ezagupenak mobilizatuz, egoera gatazkatsu batetik irteko ahalmena*. Azken finean, azpimarratzen den ideia nagusia zera da: gaitasunaren eta testuinguruaren arteko etengabeko elkarrekintza, hots, testuinguru batetik bestera ikasitakoa transferitzen jakitea; eskolaren testuingurutik, bizitzara eta, bide batez, lan-testuingurura pasatzean ikasitakoa nola aplikatu ezagutzea, ulertzea eta abian jartzea. Hori guztia gauzatzeko ezinbestekoa da ikasketa-testuinguruak egoki diseinatzea, eta liburuan zeregin eta baliabide proposamen interesgarriak azaltzen zaizkigu.

Irakasleek aldaketa hori guztia teorian ulertzen badute ere, hezkuntza proiektuetan, curriculum proiektuetan eta etapako programazioetan aplikatu behar dute. Horretarako ere lagungarria gerta daiteke liburua, bertan ideia interesgarriak ematen baitira eredu didaktiko hau eskolako idatzizko agiritan islatzeko eta eguneroko jardueretan laguntzeko. Aipagarria da, amaitzeko, bertan jasotzen den web-grafia eta gaika antolatutako bibliografia gaurkotua eta komentatua.

*Itziar Rekalde*

PERPIÑAN, S. (2009)

*Atención temprana y familia*. Madril: Narcea.

Sonsoles Perpiñan Guerrasek familian ahalmen urritasun bat duen kide bat dutenei laguntza profesionala emateko Esku-hartze Goiztiarraren eredu bat eskaintzen digu liburu xume, praktiko eta adibide ugariz hornitutako

honetan, eta hurbilketa sistematikoa eta positiboa azpimarratzen ditu, beharrezkoak biak ere.

Liburuak hiru zati ditu: lehenengoan, egileak hurbilketa teoriko bat eskaintzen digu, eta Esku-hartze Goiztiarreko Programetan familiak betetzen duen funtzioa azpimarratzen du; bigarren zatian Ingurune Gaituen Eredua aurkezten digu, eta, hirugarren zatian, familiak esku hartzeko dituen estrategia metodologiko zehatzak proposatzen ditu.

Lan honen aberastasunetako bat ahalmen urritasuna duen haurraren inguru naturalei ematen dien garrantzia da; eta haur horren garapenean sortutako hezkuntza beharrei erantzuteko orduan, garrantzi berezia hartzen du inguru-kide horrek bere burua gai dela ikusteko beharrak.

Premisa horretatik abiatuta, Esku-hartze Goiztiarra prozesu global baten moduan ulertzen da, haurrari erantzuteaz gain, horren inguruari ere erantzun behar dion prozesu baten moduan. Prozesu horretan ahalmen urritasuna duen pertsonaren inguruko pertsona esanguratsuen konstruktua mentalak, jarrerak eta strategiak lantzen eta esplizitu eta kontziente egiten dira, pertsona horren heziketan esku hartu ahal izateko.

Erantzunkidetasunaren kapituluari aipamen berezia egingo diogu; erantzunkidetasuna haurra mugitzen den esparruetan landu beharreko helburuak adostea da, bai eta igurikapenen inguruko lana ere, hala, igurikapen horiek ahalmen urritasuna duen haurraren garapen integralera egoki daitezten.

Ezin dugu ahaztu egileak Esku-hartze Goiztiarrean lan egiten duten profesionalek familiarekin izan behar duten harremanari ematen dion garrantzia, ez eta inplikaturako pertsonen funtzioak eta mugak zehazteko beharrari ematen diona ere. Gauza positiboak eta lorpenak azpimarratzeak duen garrantzia nabarmentzen du, erabakiak hartzeko eta informazioa trukatzeko prozesuak kontziente egiteak duen garrantzia, esku-hartzean ebaluazio sistemak ezartzeak duen garrantzia... Hori guztia, haurraren inguruko eragile esanguratsuen gaitasuna areagotzeko.

Laburbiltzeko, liburu honek esperientzia handia jartzen du irakurlearen esku, seme edo alaba baten ahalmen urritasuna diagnostikatzen den unean ematen den erantzunetik bertatik jokatzeko hasteko, eta haurra gehiegi ez babesteko, ahalmen urritasuna ez ukatzeko edo antsietatea saihesteko prestatzen gaitu.

*Amaia Mendizabal*